



Azpeitian izango da 2023ko Bertso Eguna

Urtarrilaren 28an izango da. Pandemia aurretik izan ohi zen bezala, egun osoko plana antolatuko da. Laster emango ditugu xehetasun gehiago.

Bertsolari Txapelketa Nagusiak oraindik badu urratzeko bidea, baina urte hasierako ohiko hitzordua prestatzeari ekin dio Bertsozale Elkarteak: 2023ak ere izango du Bertso Eguna, eta urtarrilaren 28an egingo da. 2018tik ibiltaria da Bertso Eguna, urtero aldatzen da lekuz, eta 2023koa Azpeitian egingo da. Azpeitiko Udalaren laguntza izango du.

Aurrerago emango da eguerdiko bertso saioen eta afalosteko ekitaldiaren berri xehatua, baita bertsolarien izenak ere. Halaber, urtea bukatu aurretik jarriko dira Bertso Eguneko saio hauetarako txartelak salgai.

Bitartean, gozatu bertso plazaz eta txapelketaz!


aurrera, Euskal Herri osoan mugitzen den egitasmo ibiltaria da egun, Bertsozale Elkartearen oinarritzko helburuekin bat eginez: herrialde osoan eragitea. Pandemiak eraginda 2021ean eta 2022an data eta egiteko modua aldatu baziren ere, Bertso Eguna egin ahal izan genituen. 2023an, urtarrilera eta egun osoko planera itzultzea da asmoa.

Egun osoko plana ari gara antolatzen, pandemia aurretik egin ohi genuen bezala. 11:30ean elkartu eta kalez kaleko poteoa egingo da, libreko bertso saio irekiekin. Ondoren, 14:30ean, bertso bazkariak egingo dira zenbait elkartetan: Oilo Soro, Zulo Zabala, Ziripot, Oilagorria eta Txalintxo elkarteetan. Gainera, gustu guztiak asetzeko moduan, mota ezberdineko bertso saioa eskainiko da horietako bakoitzean: libreko saioak, bertso saio musikatuak edota gaiekin eta bertso jarriekin osatutakoak. Arratsaldean poteoa izango da, eta 21:00etan afaria eskainiko da Elikagunean. Afalostean izango da bertso ekitaldia Elikagunean bertan.

2018tik Euskal Herri osoan zehar

1968an hasi zen antolatzen gaur egungo Bertso Egunaren aitzindaria. Hasiera batean, Bertsolari Eguna izena hartu zuen, eta garaiko hainbat bertsolarien omenaldi eguna izaten zen. 1987an Bertsozale Elkarteak hartu zuen antolatzeko ardura, betiere Donostiako Udalarekin elkarlanean. 1995ean omenaldi kutsua alde batera utzi eta bestelako itxura hartu zuen egunak; izena ere aldatu zitzaion, eta Bertso Eguna izatera pasa zen.

Donostian egin zen urte luzez, eta 2017ko etenaren ondotik eta 2018tik



ANDER FUENTES
MUJIKITA ITTURRI
Iruñea, 2022-10-14
Iruñeko III. Bertso Paper Lehiaketako irabazlea

Izenburua: *Iluntzean*
Doinua: *Norbere mundu intimo*

Irakurriko duzuna
oinaze baten zioa
etengabe bihurtua
niretzat obsesioa
mina, tristura, dolua
pena, amorrazioa
nola itzali zaizkidan
poza eta pasioa
ez berritzeko luzaro
izan dut tentazioa
zuretzat nik ez dakit zer
nire liberazioa
bertso bidez aitortzen dut
kontatzeko desioa
isilik eta pixkana
hil nauen depresioa.

Sorta osoa eta gainerako lan sarituak:
<https://www.bertsozale.eus/eu/nafarroa/iruneko-bertso-paper-lehiaketa>



2022an Izpuran egin zen Bertso Eguna. //XDZ

“Nik uste zorte handia izan dudala, inguruarekin eta bertsoarekin berarekin ere bai”

Iñaki Murua Jauregik (Gabiria, 1956) jantziko dio txapela 2022ko Bertsolari Txapelketako irabazleari. Harekin elkartu da Bertsoa.eus, eta hementxe solasaldi horretako lagin bat.

Nola hartu duzu irabazleari txapela jartzeko proposamena?

Egia esan, harrিতuta bezala harrapatu nau. Gustuko lekuan aldaparik ez, eta ni hor elkartean oso gustura aritu naiz. Uste dut eman dudana adina jaso hortxe-hortxe egin dudala, edo gehiago; eta alde horretatik, ez dakit, ni gehiago sentitzen nintzen lankide bat gehiago eta horrelako ohorerik izaterik ez nuen espero. Baina gustura, oso gustura: niregatik, ingurukoengatik, Gabiriagatik eta etxeokoengatik ere bai. Hor bertsoan eta bileretan ibili garenean, norbaitek gabezi edo hutsune hori sentitzekotan, etxean, eta seme-alabek eta Blancak (bikoteak) ere estimatu dute hau, eta alde horretatik ere oso gustura.

Zure kasuan bertsoan oso gazte hasi zinen, 15-16 urterekin, eta jada 18-19rekin plazako elitean zenbiltzan. Geroztik bai txapelketan bai plazan lehen lerroan urte askotan ibili zara. Nola bizi izan duzu zure bertsolari ibilbidea?

Bertsolari izatera Luzio Gabiria herritarrak eta Eusebio Igartzabalek bultzatu ninduten. Hor inguruan oso mimatuta eta babestuta ibili izan naiz; eta gero bertsoan, zuk esan bezala, 19 urte ingururekin, ez dakit elitean sekula egon naizen baina hor ibili naiz, eta Sebastian (Lizaso), Egaña, Euzkitze, Sarasua, Telleria, Mikel Mendizabal,... kuadrilla horretan bat gehiago izatea ohore handia da. Iruditzen zait zorte handia izan dudala jende hori inguruan izatearekin, eta ahal dudana egin dut; gustura, eta iruditzen zait ez dudala beste munduko ezer egin. Ez dut txapelik jantzi; jarrera kontua ere bada hori, pertsonaren izaera. Gogoratzen naiz Tolosako saioan, 86ko txapelketa zela uste dut, Egaña eta biok ginen ofizioetan, zortziko handian azkenak hasten, eta ni aulkitik altxa nintzenezan esan nuen “*Beno, orain ikusiko diagu ba*”, eta “*Ez, Iñaki, orain ikusiko ditek*”. Eta ikusten da hark zenbat txapel dituen eta Iñakik zenbat...



Abenduaren 18an “egun biribila bizitzeko itxaropenez eta ilusioz” dago Murua. // XDZ

Bertsoa eta Iñaki Murua. Iñaki Murua eta bertsoa. Biok elkarri zer eman izanaren sentipena duzu?

Tira, nik uste zorte handia izan dudala, inguruarekin eta bertsoarekin berarekin ere bai. Iruditzen zait euskaran sakontzeko, hizkuntzarekin jolas egiteko joera hori,... oraintxe ere edozein esaldi entzuten dudanean beti nago punta bila adar jotzeko, edo horrek asko asetzen nau. Eta bertsoak niri eman didana batetik hori da, eta nik bertsoari zer eman didan... ez dakit hori esaten, hori zuek esan beharko duzue edo inguruak. Iruditzen zait bertsoak niri gehiago eman didala, askoz gehiago, nik berari baino. Besteak beste, Euskal Herria ezagutzen eta geografia ere bai.

“Maila ikaragarria dago, eta sartzen dena sartzen dela, final bikaina izango dela ziur nago”

Zure talaia eta ibilbide pribilegiatu horretatik, nola ikusten duzu bertsolaritza orokorrean eta Bertsozale Elkartea bera?

Bertsolaritzan orokorrean jende gazte asko dabil. Berriak asko datoz. Txapelketako saio denetara joan naiz, eta harrিতuta nago zein maila duen jendeak: erantzuteko gaitasuna, hizkuntzaren menderatzea,...izugarria da. Orduan alde horretatik, oso-oso harrিতuta. Gainetik pasatzen nautela konturatzen naiz, eta hori ederra da; sentsazio ona da, norberak ahal duena egin, baina batik bat asko jaso duenean, eta beste batzuk norberak egiten duena baino askoz hobeto egiten ikustea. Harro egoteko modukoa da. Ereindako hazi horrek eman duen fruitua esango nuke nolabait. Eta elkartea esango nuke hori dena dela azkenean; ikusten ez den lan bat zuek egiten duzuen, eta hor lehendakari izatea ohore bat izan da, eta harro egotekoa. Baina benetan meritua daukatenak dira ezkutuan lanean ari diren horiek denak; horiek mimatzea, horiek zaintzea dagokigu.

Aipatu duzu orain arteko Txapelketa Nagusiko saio guztiak ikusi dituzula bertatik bertara. Finalera bitartekoa nola irudikatzen duzu eta Iruñeko finala bera?

Iruñeko kezkatik bizi dut. Txapela jartzeak badu erantzukizun bat. Ez dakit kantatzeko gai izango naizen, emozioak gain hartuko dit seguru asko, baina hori gutxienezkoa, hori nire arazo pertsonala besterik ez da. Eta bertsoan ikusten dut txapelketan gaiak, gaiak tratatzeko era,...galbahe estua dago. Ez dakigu finalean: orain arte izan diren batzuek utzi dute, badirudi leku batzuk badaudela hor. Jendea zain dago, genero berdintasunerantz urratsik egiten den, emakume gehiago sartzen diren, ez diren,.. Maila ikaragarria dago, eta sartzen dena sartzen dela, final bikaina izango dela ziur nago. Sarrera txartelak agortuta daudela badakit, eta egun biribila bizitzeko itxaropenez eta ilusioz.



Ikusi eta entzun elkarriketa osoa bertsoa.eus atarian

Bertsularitza kultura-ondare immaterialaren katalogoan sartu du Frantziako Kultura Ministerioak

Bi katalogoetan dago bertsoalaritza ondare immaterial gisa aitortua gaur egun: 2018an Nafarroako lurraldean jaso zuen izendapena, eta orain Bertsularien Lagunak elkartearen bidez eskaera eginda, Frantziakoan.

Pasa den udaberrian egin zuen eskaera Bertsularien Lagunak Elkarteak, eta azken astean jaso du baieztako erantzuna: bertsoalaritzak kultura-ondare immaterialaren izendapena lortu du Ipar Euskal Herrian. Izendapen honen ostean, bertsoalaritza bi lurraldetako katalogoetan edo inbentarioetan geratu da jaso: 2018. urtean Nafarroako lurraldean jaso dezakeen babes mailarik gorenean jaso zuen, eta aurren, Frantziako kultura-ondare immaterialaren zerrenda nazionalan sartu du Frantziako Kultura Ministerioak.

“Ezagutu, praktikatu eta transmititu”

azpitoluarekin helarazi zaio izendapena egiaztatzen duen agiria Aritz Bidegain Bertsularien Lagunak elkarteak lehendakariari. *“Duen garrantzia eman behar zaio izendapenari, ez gehiago eta ez gutxiago: bertsoalaritza mugimendu bizia da gaur egun herriz herri eragile, sortzaile eta pertsona askok egindako lanari esker eta urtetako lanari egindako eskertza gisa hartu behar dugu izendapena”*, dio Bertsularien Lagunak Elkarteak Ainhoa Elizondok.

laz abiatu zuen proiektua Bertsularien Lagunak Elkarteak. Beñat Iturralde Agirre

antropologoaren gidaritzapean eta Thaïs Boukellaren laguntzarekin osatu da bertsoalaritza ondare immaterialaren katalogoan sartzeko beharrezko den ikerketa lana. Fabien Van Geert Parisko Sorbonne Nouvelle Unibertsitateko antropologoa aritu da arduradun zientifiko lanetan. Hauek ez dira lankide bakarrak izan, ordea, Iturraldek ondoan izan baititu Euskal Kultur Erakundeko Terexa Lekunberri antropologoa eta inauteri eta euskal tradizioetan aditu den Thierry Truffaut ere. Xenpelar Dokumentazio Zentroko kideen laguntza ere ezinbestekoa izan da lana burutzeko.

Mikel Laboa Katedrarekin deitutako ikerketa sariak banatu ditugu

Batetik, jada egindako gradu amaierako lan bat saritu dugu; eta bestetik, urtebeteko epean egin beharko den ikerketa proiektu bat.

Uztailan deitu genituen UPV/EHUko Mikel Laboa Katedrak eta Bertsozale Elkarteak GRAL Saria eta Ikerketa Proiektu Saria lortzeko deialdiak; ikerlanak eta proiektuak jasota eta epaimahaiak horiek aztertuta, iritsi berri da ebazpena.

Maddi Soroa Navarroren *Bertsolariaren formazioan bertsoa sortzeko eta interpretatzeko kompetentzia* arloak ikerlanak irabazi du GRAL Saria. Bertsoalaritzari buruzko GRAL Sariaren deialdirako lan gehiago ere aurkeztu dira, eta egileen baimenarekin kontsultatzeko moduan daude Xenpelar Dokumentazio Zentroan.

Bertso-eskola Zaballako espetsuan: presoan, espetsuean eta bertso mugimenduaren arteko elkarreragina izena duen proiektuak irabazi du, aldiz, Ikerketa Proiektu Saria. Taldean aurkeztutako proiektua da, eta Iñaki Viñaspre Simon, Izar Mendiguren Cosgaya, Oihane Perea Perez de Mendiola eta Ruben Sanchez Bakaikoa dira taldeko kide. Urtebeteko epean egin beharko dute ikerlana.

Zorionak saridunei eta mila esker parte hartu duzuen guztioi!



Maddi Soroak eskuratu du GRAL Saria. //XDZ



Puntua jarrita

IGAURI LOPETEGI AMOSTEGI

Gasteizko astearte friki haiek eta txoroen arteko txorakeriek elkartu gintuzten Gorka eta biok, etxeratze agindua besteen etxean konplitud. Kaletik bakartze hark gu elkartu gintuen bezalaxe, Irundik aldentzeak esango nuke bertsoarekin batu ninduela berriz ere. *Frikitzeko* edo bertsozaletzeko aukera eman zidan ikasleen artean arnasten den bertso giroak, guk hauspotu genuenak.

Zuk diozun moduan euskararen helmen mailak guztiz baldintzatzen du bertsoaritzarena, eta Irunen kasuan nahi baino arunt murriztagoa da hau. Zaila suertatzen da edozein tabernatan gazte kuadrilla bat euskaraz aditzea. Bertsoarengan honek eragin zuzena du, eta ordu txikitako puntulariez gain, gure belaunaldian ez da bertsoaririk.

Dena den, xuri guztiak ez dira irinak, eta ordu txikitako puntulari hauekin kalean inoiz bertsoan aritu izan naizenean beti agertu izan da "*Hostia, ¡Qué guapo!*" edo antzekorik esan duen norbait. Bertsoa posible da, beraz, jendea euskaltzaletzeko, edo zenbait aurreiritzi gairiditzeko bederen, tresna izan, baita Irun bezalako hirietan ere. Hortaz, plazan egin nahiko nukeenari helduta, jaioterrian egin egin nahiko nuke, ordu txikitako puntulari hauek bertsoak edo bihur daitezela eta "*¡Qué guapo!*" diotenak bertsozale. Horretarako, euskaraz bizitzeko egiazko baliabideak behar ditugu, ordea, eta ez naiz bereziki optimista honi dagokionez. Kapitalismoak hizkuntza gutxituak irensten segitzen duen bitartean, patu krudela datorkigu.

Gasteizera Zaldibiatik etorri zen Maide Garmendiarengana joko dut nik puntua jartzera. Gorkaren lagun egin nintzen pisu berean ezagutu nuen Maide, bertsoan hizketan beste eginez ia-ia. Euskararen aferatik pixka bat aldentze aldera, zer ari zaizu iruditzen txapelketa nagusia? Zer dakarkigute gure belaunaldikideek eta nola islatzen da hau gure plazetan?

Koplak

Bertsozale Elkarte Euskaraldiarekin bat

Hirugarrenez abiatu da Euskaraldia. Gure hizkuntza ohiturei arreta jarritz euskararen erabilera handitzea da helburua. 2022koa azaroaren 18tik abenduaren 2ra arte izango da, eta maila pertsonalean nahiz kolektiboan hartu ahal izango da parte ariketan. Bertsozale Elkarte arigunea da; gune hauek euskaraz hitz egiteko aukera bermatzen dute uneoro, izan entitate barruan edo izan entitateak herritarrekin duen harremanean. Orain eta beti!

Poto-Finixa



Txapelketa prentsan

Xenpelar Dokumentazio Zentroa

BBK Sariketak 30 bete ditu

Azaroaren 7an hasi zen BBK Sariketaren XXX.edizioa. Jada finalurrekoetan da sariketa, eta abenduaren 1ean jokatu da finala Bilbon. Gainera, aurtengoa zenbaki biribila izanik, urteurren jaia egiteko ere baliatu da hitzordua.

OIHANA IGUARAN · AMAIUR LULUAGA

AMARAUN

IRUNEZ IRADUN

Lanku
kultuz zerbiztuak

Kontrataziorako
marketina@lanku.eus helbidera idatzi
edo 675.716.472 telefonora deitu

PUBLIZITATEA